

AURREKARIAK

Txosten hau Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera ematen da; legea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuan garatzen da. Zehatz-mehatz, 2.2.a) artikuluan ezarritako egitekoa da txostenaren oinarria. Horretarako, 2022ko maiatzaren 26an, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, aurreproiektua sustatzen duen organoak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua osatzen duten pertsoneri helarazi zien testua. Hain zuzen, testua maiatzaren 30eko bilkura berezian aurkeztu zen. Bertan, aurreproiektuari ekarpenak egiteko epea irekitzea erabaki zen, ekainaren 20ra arte, eta gero 24ra arte luzatu zen. Lan-talde bat eratu zen kide hauekin: kontseiluko batzorde iraunkorra osatzen duten pertsonak —organo sustatzailea ordezkatzeko duena izan ezik—, Euskadiko GGKE-en Koordinatzaileko beste pertsona bat eta bi ordezkari instituzional (zehazki, Emakunde eta Lehendakaritza). Talde hori, aurkeztutako ekarpenak jaso ondoren, lan-saiotan bildu zen 2022ko uztailaren 5ean eta 11n, eztabaidatzeko eta txosten-proposamen bat adosteko. Proposamena Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren 2022ko uztailaren 18ko osoko bilkuran aurkeztu zen.

Lankidetzari eta elkartasunari buruzko euskal legearen aurreproiektuak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sustatuak, euskal administrazio publikoek lankidetzaren eta elkartasunaren arloan darabiltzaten politiken araubide juridikoa ezartzea eta arautzea du xede.

Hona hemen lege-aurreproiektuaren egitura: zioen azalpena, bost kapitulu, hogeita bost artikulua, hiru xedapen iragankor, legea indarrean hasi arte indarrean egongo den esparru juridikoa indargabetzeko xedapen bat eta azken lau xedapen. Proiektua Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko kideen esku utzi ondoren, txosten hau egin zezaten, Euskadiko GGKE-en Koordinatzailearen eta REAS Euskadiren ekarpenak jaso dira.

Ekarpen batzuk oso zehatzak dira eta, horregatik, hausnartzeko eta adostasuna bilatzeko ariketa baten ondoren, batzorde iraunkorrak uste du txosten honek ekarpenek jorratzen dituzten kontu orokorrak jaso behar dituela, kontseiluari bidaltzeko. Gogoeta zehatzak, ostera, Eusko Jaurlaritzari bidali behar zaizkio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2022ko maiatzaren 13ko ebazpenean, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen Aurreproiektua, xedatutako baliabideen bitartez.

GOGOETA OROKORRAK

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren aburuz, aurreko legearen edukiak, hots, Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearenak, eguneratu eta berrikusi behar ziren. Promulgatu zenetik 15 urte igaro direnez, euskal lankidetzaren eta haren eragileen testuinguruek, egoerak eta ibilbideak berak beharrezko egiten dute helburuak birkontzeptualizatzea eta antolamendua egokitzea, planteaturiko erronkei erantzun eraginkorra emateko.

Ikuspuntu horretatik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak ondo baloratzen ditu aurkeztutako lege-aurreproiektuaren alderdi hauek:

1. NBEk historikoki eskatu duen moduan, % 0,7 lankidetz-politiketara bideratzeko aurrera egin beharra mantentzen da (zioen azalpena eta 19. art.), baina ñabarduraren batekin, txosten honen ondorioen apartatuan aipatuko den



moduan.

2. Nabarmen aurrera egin da euskal lankidetzaren publikoan parte hartzen duten erakunde-maila guztien aintzatespenean eta koordinazioan (II. kapitulua).
3. Euskal lankidetzari garrantzi politiko eta sozial handiagoa eman nahi zaio, bai haren egoerari buruzko txostenei buruzko xedapenaren bidez (10.g art.), bai ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketaz eta komunikazioaz xedatutakoan (V. kapitulua).
4. Zuzen jasotzen da politiken koherentzia bultzatu behar dela eta aitortzen da garrantzitsua dela beste sail batzuen politikak lankidetzaren politikekin koherenteak izatea (12. art.), Eusko Jaurlaritzaren osoari eta administrazio publiko guztiei dagozkien arauak handinahiagoak eduki beharrez haraindi.
5. Planteatzen da prozesu burokratikoak eta ekintzen eta dirulaguntzen betearazpena ireki eta malgutu behar direla (18. art.), nahiz eta dekretuetan eta beste garapen batzuetan kontuan hartu beharko den, beren egungo konplexutasuna eta zurruntasuna murriztu behar dituzte eta.

Gainera, Lankidetzaren Euskal Kontseilua bat dator testuinguruaren analisi kritikoarekin, deskribatzen diren egiturazko eta interkonektatutako arazoekin eta lege berriak lortu nahi duen ikuspegi-aldaketarekin, ikuspegi lokal-globala inplizituki baitarama. Ondo identifikatu dira aurre egin behar diegun krisiak eta erronkak. Dena den, horri dagokionez, testuak gehiago nabarmendu beharko luke herrialde aberastuek sustatzen duten sistemak horietan daukan erantzukidetasuna. Halaber, oro har bat dator proposatzen diren printzipio eta ikuspegiekin, baina uste du ekarpenetako gogoeta zehatzetako batzuk bil daitezkeela (6. eta 7. artikulua).

Gogoeta orokor moduan orobat, Lankidetzaren Euskal Kontseiluak kontuan hartu beharko lirakeen eta neurri batean lege-aurreproiektuan (zeharka) agertu beharko luketen alderdi garrantzitsu batzuk azpimarratzen ditu:

6. Testu guztian zehar (batez ere zioen azalpenean eta I. kapitulan), «giza garapena eta jasangarritasuna, justizia eta bizikidetzaren globala» aurkezten dira lankidetzaren helburu eta eduki nagusi gisa. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren iritziz, egungo testuinguruek premiazko erronka ekosozialak, eredu sozioekonomikoaren jasanezintasuna, autoritarismoen gorakada eta horrek dakarren demokraziaren eta giza eskubideen higadura ditu bereizgarri (alderdion ez zaie behar adinako arretarik ematen aurreproiektuan) eta, horren ondorioz, lankidetzaren kontzeptuak eta helburuak birplanteatu behar dira. Ikuspuntu horretatik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren aburuz, lankidetzaren eta elkartasunaren amaierako helburuak bizitzaren jasangarritasuna lortzen laguntzea izan behar du, generoarekin, ekonomiarekin, ingurumenarekin eta gizartearekin lotutako justiziaren ikuspuntutik, baita sozietate zibila ahalduntzeko prozesu demokratikoetan sakontzen laguntzea ere. Eremu honetatik kanpoko leku akademiko eta politikoetan kokaturiko debateak direla irudi dezakeen arren, ez da hala; izan ere, aurreproiektu honek aurreratzen duen legeak zehaztu behar du zer zeregin eta helburu dauzkan lankidetzaren gure planeta leku bidegabe, bortitz eta jasanezina bihurtzen duten ezaugarri nagusiak nabarmen eta modu orientatuan eraldatzen laguntzeko.
7. Era berean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak eremu ekonomikoaren garrantzi handiagorekin falta nabaritzen du, bai analisisetan, bai

helburuetan, edukietan eta lankidetzak-ekintzetan. Pobreziaren eta desparekotasunen areagotzea, jaioterritik alde egin behar duten biztanleen nahitaezko mugimenduak, giza eskubideen urraketa eta ekoizpen-ereduen eta kontsumo-ereduen jasanezintasuna zuzenean lotuta daude eredu ekonomiko kapitalistaren hedapenarekin eta garapenarekin. Hain zuzen ere, eredu horrek jartzen du zalantzan bizitzaren jasangarritasuna.

Badirudi lankidetzak ikuspegi hori barne hartu beharko lukeela bere analisisetan eta zenbait ekintza-modalitateetan alternatiba ekonomikoen garapena bultzatu beharko lukeela, bai hirugarren herrialdeetan, bai gure gizarteetan. Ildo horretan, Lankidetzaren Euskal Kontseiluak, helburuetan eta modalitateetan, ekonomia kritiko eta eraldatzaileen (feminista, ekologikoa, solidarioa, ondasun komunena...) eremuaren berariazko aipamenaren hutsunea sumatzen du, baita garatzen dituzten praktika ekonomikoena ere: ekonomia sozial eta solidarioa, kooperatibismoa, bidezko merkataritza, nekazaritzako ekologia, elikadura-burujabetza, ezagutza, teknologia eta kultura askeak, finantza etikoak, zirkuitu ekonomiko solidarioak eta merkatu soziala, ekintzaitza sozial eta lankidetzazkoa, kontsumo kontziente, kritiko eta eraldatzailea, herri-ekonomiak eta ekonomia komunitarioak, etab.

8. Erakunde sozialentzat duen garrantzia eta instituzioetan ere eman zaion arreta gorabehera, gizarte-eraldaketarako hezkuntza ia ez da aipatzen (17. artikuluan, modalitateekin lotuta) eta ez da beste ezein apartatutan jasotzen, ez kontzeptua, ez izaera estrategikoa. Hala, batzuetan, badirudi hezkuntzarako, sentsibilizaziorako eta gure gizarteetan balio eta praktika alternatiboak sustatzeko ekintzak ez direla garrantzitsuak lankidetzaren eta elkartasunaren helburuak erdiesteko. Modu horretan, kontzeptu oker bat helarazten da, alegia, lankidetzak eta elkartasunak nagusiki Hegoaldeko herrialdeetan egiten den lankidetzarekin dutela zerikusia eta, are garrantzitsuagoa, gure gizarteetako politikak, egitura ekonomikoak, portaerak eta balioak ez direla gure planetako jasanezintasunaren eta bidegabekeriaren jatorria.
9. Euskal lankidetzaren eta elkartasunaren arkitektura edo antolaketa definitzeko (II. kap.), ezinbestekoa da bultzatzen duten eragile guztien existentzia aitortzea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren aburuz, zuzena eta bidezkoa da GGKE-ek euskal lankidetzaren sorkuntzan eta ibilbidean izan duten garrantzia aintzatestea, lege-aurreproiektuak egiten duen bezala.

Hala ere, aipatu den moduan aurreproiektu honek hainbat erakunde-mailaren arteko lankidetzaren irismena eta koordinazioa zabaltzen dituen arren, gainerako gizarte-eragileak ez dira aipatzen eta ikusezin egiten dira, hala nola GGKEak eta sozietate zibileko beste entitate batzuk, nahiz eta euskal lankidetzak publikoaren zati handi bat bideratu eta biztanleriaren sektore zabalen eta askotarikoen elkartasuna mugiarazi.

Adibidez, eta besteak beste, 18. artikuluan (laguntzei eta dirulaguntzei buruzkoan) eta 20., 21. eta 22. artikuluetan (dauden figurei buruzkoetan), gizarte-eragileekin zerikusia duten alderdiak arautzen dira, baina, hala ere, II. kapituluaren desagertu egiten dira, bai lankidetzaren eragileak direla aitortzeari bai lankidetzako eta elkartasuneko politikak identifikatzeko, betearazteko, haien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko espazioetan nahitaez parte hartu behar duten eragile aktiboak direla onartzeari dagokionez.

Hori dela eta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ustez, lege-aurreproiektuak GGKE-en, sozietate zibileko beste entitate batzuen eta haietan

lan egiten duten pertsonen zeregin zehatz eta protagonikoa aitortu beharko luke, bai zioen azalpenean, bai artikuluetan.

GOGOETA ZEHATZAK

Aurreko apartatuan azaldu den moduan, artikuluen idazketarekin zuzeneko lotura duten gogoeta batzuk oso zehatzak direnez, eta operagarritasuna lortu eta adostasuna bilatzeko asmoz, Lankidetzaren Euskal Kontseiluak uste du erakunde bakoitzak lehenago aipatutako araudian xedaturiko bitartekoen bidez bidali behar dizkiola erakundeari, txosten honek lege-aurreproiektuari buruzko kontu orokorrenak jaso ditzan, haiei buruz sor daitezkeelako eztabaida eta jarrera-hartze orokorra Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren aburuz.

ONDORIOAK

Lankidetzaren Euskal Kontseiluak ondo baloratzen ditu euskal lankidetzaren politika arautzen duen legeriaren eguneraketa eta berrikuspena. Izan ere, haren ustez, legeriaren helburuak, printzipioak eta ikuspegiak birkontzeptualizatu behar dira, eta antolamendua egokitu, planteaturiko erronkei erantzun eraginkorra emateko. Era berean, ondo baloratzen ditu lege-aurreproiektuak alderdi hauetan planteatzen dituen aurrerapenak:

1. Lankidetzako eta elkartasuneko politika publikora xedatutako baliabide publiko gehiago aurreikustearen garrantzia. Hala, egokitzat jotzen da errenta nazional gordinaren % 0,7 garapenerako laguntza ofizialera xedatzeko nazioarteko konpromisoa hartzea, non eta legearen artikuluetan, ez xedapen gehigarri batean. Euskadik nazioarteko konpromisoari egiten dion ekarpenean aurrera egitearren, gomendatzen da ekarpen hori EAEren eremuan zehazteko aukera aztertzea, estatu-eremuan zehaztu beharrean.
2. Euskal lankidetzaren publikoan parte hartzen duten erakunde-maila guztien aintzatespenean eta koordinazioan egindako aurrerapen nabarmena (II. kapitulua).
3. Euskal lankidetzari garrantzi politiko eta sozial handiagoa emateko helburua, bai haren egoerari buruzko txostenen inguruko xedapenaren bidez (10.g art.), bai ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketaz eta komunikazioaz xedatutakoan (V. kapitulua).
4. Garapen jasangarrirako politiken koherentziaren sustapena; zuzen jasotzen da koherentzia bultzatu behar dela eta aitortzen da garrantzitsua dela beste sail batzuen politikak lankidetzaren politikekin koherenteak izatea (12. art.), Eusko Jaurlaritza osoari eta administrazio publiko guztiei dagozkien arauketa handinahiagoak eduki beharraz haraindi.
5. Finantzaketa-tresnak nazioarteko estandarretara eta herrialde eta lurraldeen errealitateetara egokitzeko aurrera egiteko konpromisoa; horren arabera, prozesu burokratikoak eta ekintzen eta dirulaguntzen betearazpena ireki eta malgutu behar dira, nahiz eta dekretuetan eta beste garapen batzuetan kontuan hartu beharko den, beren egungo konplexutasuna eta zurruntasuna murriztu behar dituzte eta.

Hala ere, Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren aburuz, lege-aurreproiektuak txostenean eta ekarpenetan gai hauei buruz egindako gogoetak eta proposamenak kontuan hartu behar ditu bereziki:

6. Egungo testuinguruaren alderdiak irmotasun handiagoarekin jasotzea (batez ere zioen azalpenean eta I. kapituluan): premiazko erronka ekosozialak, eredu sozioekonomikoaren jasanezintasuna, autoritarismoen gorakada eta horrek dakarren demokraziaren eta giza eskubideen higadura.
7. Ekonomia kritiko eta eraldatzaileen (feminista, ekologikoa, solidarioa, ondasun komunena...) eremuaren berriazko aipamena jasotzea, baita garatzen dituzten praktika ekonomikoena ere (batez ere helburuen eta modalitateen definizioan): ekonomia sozial eta solidarioa, kooperatibismoa, bidezko merkataritza, nekazaritzako ekologia, elikadura-burujabetza, ezagutza, teknologia eta kultura askeak, finantza etikoak, zirkuitu ekonomiko solidarioak eta merkatu soziala, ekintzailtza sozial eta lankidetzazkoa, kontsumo kontziente, kritiko eta eraldatzailea, herri-ekonomiak eta ekonomia komunitarioak, etab.
8. Gizarte-erlaketarako hezkuntzari nabarmentasun handiagoa ematea, hezkuntzarako, sentsibilizaziorako eta gure gizarteetan balio eta praktika alternatiboak sustatzeko ekintzek lankidetzaren eta elkartasunaren helburuak erdiesteko duten garrantzia indartzeko asmoz.
9. Euskal lankidetzaren publikoaren antolamenduari (II. kapitulua) eta lankidetzaren eragileei (8. artikulua) dagokienez, beharrezkotzat jotzen da GGKE-ei eta sozietate zibileko beste gizarte-entitate batzuei nabarmentasun eta presentzia handiagoa ematea. Dagoen deskonpentsazioa saihesteko eta euskal lankidetzaren parte hartzen duten eragile guztien pisua eta presentzia orekatzeko helburuarekin, II. kapitulua berrikustea proposatzen da.
10. Azkenik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak zuzeneko lankidetzari buruz gogoeta egitera animatzen du. 1/2007 Legearen 9.3 artikulua Eusko Jaurlaritzarentzat eta harekin lotutako erakunde publikoentzat ezartzen duen % 10eko mugatik abiatzen gara. Hala ere, aurreproiektuak eskatzen du eragile sozial eta instituzionalek bultzatutako lankidetzaren jarduketetan osagarritasuna eta koordinazioa lortzeko behar den aurrerapena egitea. Nolanahi ere, uste dugu aldaketa posible oro mailaka egin beharko litzatekeela.